

Unai Baztarrika ingeniari informatikoa bada ere, idaztea betidanik gustatu izan zaio. «Ezinezbestean» bere lehenengo argitalpena da, poesia liburua, hamar urtetan idatzi gabeko hitzen bilduma. Blas de Otero lehiaketa irabazi zuen eta saria liburua argitaratzea izan da.


Informatikatik poesiara, iraganeko pausoei jarraika

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

«Ikasle garaian alde batera josten bestera noizbait itzuliko nintzela pentsatuz», aipatu zuen Unai Baztarrikak bere lehenengo liburua aurkezpenean. Izan ere, beasaingorri betidanik gustatu izan zaio idaztea, baina 18 urterekin zer ikasi nahi zuen erabakitzea tokatu zitzaionean Ingeniaritza Informatikoa hautatu zuen. Harrezkero lanbide horretan dabil Arrasateko kooperatiba batean.

Hamar urte idazketari aukerarik eman gabe pasatu ostean, Bergarako idazle eskolan hasi zen eta bertan liburu bati nola aurre egin behar zaien ikasi du. Hala, bere emazteak animatuta, poemak idazten hasi zen. Bilboko Udalak antolatzen duen Blas de Otero poesia lehiaketara aurkeztu zituen eta irabazi egin zuen (Unamuno saiakera lehiaketa eta Gabriel Aresti ipuin lehiaketarekin batera, Udalak antolatzen duen literatura lehiaketetako bat da).

Horren saria Erein argitaletxearekin liburua argitaratzea da —eta 6.000 euroko diru saria— eta, hala, «Ezinezbestean» eman berri du. «Hasieran 'Arrakalak' izena jarri nion, baina konturatu nintzen bazegoela beste liburu bat izen horrekin», eta aldatu egin zion. Hala ere, hasierako izenburu horrek poemak gaiekin zerikusia dauka. «Liburuaren gaineko azalpen bat idazteko eskatu zidaten eta



Unai Baztarrika bere lehenengo liburua erakusten, atzo, Donostian. Gorka RUBIO | ARGAKZI PRESS

ez zen lan erraza izan, poemak ez nituelako liburu batean pentsatuz idatzi. Fragmentatuta idatzi nituen; niri liburu baino poemario deitzea gustatzen zait. Aurretik pentsatu gabe izan arren, badaude gai komun batzuk: Arrakalak, hormetako pitzadurak, norberak barruan dituen sentipenak, sinismen tinkoak adinean aurrera egitean pitzatu egiten direnak. Zirrikitu horiek dira gaia, kontraesanak. Azken finean, poemetan eran-

tzunak eman baino galderak egiten ditut», azaldu zuen.

Poema ilunak eta alaiak

Liburu honen jatorria une pertsonal gogor bat da. «Bizitzaren une hori itxi eta berria hasteko» balio izan dio, eta horregatik askorentzat poemak ilun samarrak izan daitezke. Hala ere, badaude testu alaiagoak. Idazlearen usatez, poesiak benetakotasunean oinarritu behar dira eta ez du itzulingururik izan behar.

Gai unibertsalak jorratu ditu: heriotza, denbora, maitasuna, desioa, Euskal Herria... baina ikuspuntu propioa eman die guztiei, batzuetan lehenengo pertsona erabiliz eta beste batzuetan hirugarrena, nahiz eta «bigarren pertsona poetikoa» ere ageri den. «Oso irakurle ona» ez dela izan onartu zuen arren, Jose Luis Otamendi eta Joseba Sarrionandiaren lanak gustuko dituela aipatu zuen Baztarrikak.

CASI 7.500 PERSONAS
La XX edición de Fant tuvo un 50% más de espectadores

La XX edición del Festival de Cine Fantástico de Bilbao Fant atrajo a 7.429 espectadores, un 50% más que el año pasado, según informaron ayer los organizadores. Estos estiman que ese incremento de los espectadores, que en los dos últimos años suma un 78%, «consolida» el certamen dentro de la programación cultural de la ciudad y a nivel internacional dentro del género de cine fantástico y de terror. El aumento de público ha sido posible gracias al uso de salas con mayor capacidad y el aumento de proyecciones.

ÚLTIMA ENTREVISTA
Philip Roth pone fin a su carrera literaria y su vida pública

El autor estadounidense Philip Roth, de 81 años, confirmó en una entrevista en la cadena de televisión británica BBC que no volverá a escribir ni a aparecer en público. Esta fue la última aparición en pantalla del escritor, ganador de un premio Pulitzer por su novela "American Pastoral". A pesar de que en 2004 afirmó que no concebía una vida sin escribir porque le daba miedo «no tener nada que hacer», en la entrevista aseguró que estaba equivocado y que ya ha llegado al final porque no tiene nada más que escribir.

Carlos Taiboren osteguneko hitzaldiak zabalduko du X. Liburu Anarkistaren Azoka

Alvaro HILARIO | BILBO

Carlos Taibok, Madrigo Unibertsitate Autonomoko Zientzia Politikoko irakasle eta idazleak (Madril, 1956), emango dio hasiera Bilboko Liburu Anarkistaren Azokaren hamargarren edizioari, bihar, 19.30ean, Bilboko Zazpikaleetako La Bolsan, "Anarkia berriz pentsatu" hitzaldiarekin. Izan ere, asteburuko ohiko liburuen salerosketa eta erakusketarekin batera, mintzaldi, tailer eta bestelako ekitaldiekin osatu baitute egitaraua.

Dena dela, ohiko bezala, asteburuko bilduko ditu Euskal Herrian pentsamolde libertario-

ak zabaltzea helburu duen azokaren ekitaldi gehienak, larunbatean eta igandean burutuko baitira.

Hainbat ekitaldi

Hamar bat dira asteburuan zehar Unamuno plazan erakustokiak ipiniko dituzten argitaletxeak (Bilboko DDT, Bartzelonako Virus, Logroñoko Pepitas de Calabaza, besteak beste), eta Irola Irrati Libreak emango du gertatuko denaren berri zuzenean plazatik bertatik.

Arratsaldeko seietan, Dolores Marin historialariak bere azken liburua, "Anarquía" (Ariel, 2014), aurkeztuko du. Gainera, egune-

an zehar, haurtzako zein helduentzako idazketa sortzailea lantzeko tailerrak egongo dira, eta Rebertso taldeak poesia libertarioaren irakurraldia egingo du.

Igandean, berriz, "Ajoblanco" aldizkariaren sortzaileetako bat, Pepe Ribas, argitalpenaren ibilbideaz mintzatuko da, 12.00etan Unamuno plazan.

Era berean, goizak hainbat testu libertarioaren irakurketa zein "Humanos intentándolo", Cantautor sin Personalidad taldearen ikuskizuna, ere hartuko ditu.

Liburu anarkistaren azoka 10.00etan zabalduko dute.



Escobar eta Alonso, X. Azoka aurkezteko prentsaurrekoan. A. HILARIO